


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Fermin Irigarai Goizueta "Larreko" zenari gora- sarrea Auritzen



Pablo Fermin Irigarai Goizueta

Jai handia egingo du Auritzeko irailaren hamarrez. Euskaltzaindiak eraturako jaiak dugu. Auritzen jaiotako Fermin Irigarai zenari, «Larreko» idazle ospetsuari, eskeintzen zaio egun hau.

Nafarroako Aldundegiaren eta Auritzeko Udaletxearen laguntzaz antolatu du omenaldi hau. Egitaraua betea «Larreko» zenaren omenez eskeintzen dan egitaraua.

Goizeko hamaiketan, elkar-meza Auritzeko elizan.

Hamabietan, «Muttikoak» taldearen dantzak eta jaiotetxean ezarritzen dan oroitarriaren agertzea.

Hamabiterdian, Euskaltzaindiaren biltzar irekia Udaletxean: «Larreko» zenaren aldiak mintzatuko da Damaso Intza. «Larreko» euskaltzaindiaren idazleak, berriz, Piarres Lafitte. Eta «Larreko» gizonak Eusebio Erkiaga.

Arratsaldean, jolas-herrikoiak herriko enparantzan.

Aukera-maukerako eguna igande hau edozein euskaltzaindiaren. Nafarroan da gainera. Nafarroa euskaldunak. Askok ez bait dakite Nafarroa euskaldun denik ere. Nafarroa berriz, bai hizkuntzaz, bai dantzez, bai kondairaz, bai kulturaz eta abarrez oso euskaldun dugu, oso zahar eta aberats.

Beharrezkoak ditugu denok noiz behinka arnasartzeak eta indarberritzeak. Erdal giro eta etsipenezko joeran bizi gara askotan, zoriturrez. Euskal giro garbian egurasteko egokiera izango dugula uste dugu Auritzen «Larreko» zenaren omenez.

1869 garren Urtarrilaren 25 ean jaio zen Fermin Irigarai Goizueta. Auritzeko maixu zen honen aita, Ramon Irigarai Gurrupide zena.

Porkaxone etxeko alabaz ezkondu zen, Felixe Irigarai Apat-ekin hain zuzen ere. Bi hauen semea da gure artean hain ezaguna dan Aingeru Irigarai euskaltzain eta euskaltzain idazle jatorra.

NON ZER

- BARKOXETIK
Larresoro 3 garrenean
- LEHIOAK IREKI ETA ATEAK
ZABALDU
Ugalde 3 garrenean
- TXEKOSLOBAKIAREN ONDAMENDIA
Elustondo 5 garrenean
- EZKERTIARRAK ETA ESKUBITARRAK
ELIZAN
Arostegi 6 garrenean
- MOTRIKUKO JAIAK 9-10-11 garrenetan
- LEZOKO JAIAK 12-13 garrenetan
- GALDAKANOKO JAIAK 14-15 garrenetan

Iruinean egin zituen Batxiler ikasketak. Sendagiletzarakoak, berriz, Zaragozan eta Madrillen.

Auritzen, bere jaioterrian bertan hasi zen, aurreneko sendagile lanak egiten. Beran eta Iruritan jardun zen gerora. Nafarroako Probitzi-gaixotegian sendagile eta zuzendari izatera ere iritxi zen.

Lan hauek argitaratu zituen sendagintzaz: «Topografía Médica del Valle del Baztán», «Guía Médica del asistente a moribundos», eta «Guía Médica del intérprete de Milagros y Favores». Marafionek egin zion azkeneko honi hitzaurrea. Espasa-Calpek dauka argitaraturik.

Baina lanik gogotsuena euskerazko lana zuen. Asko idatzi zuen garai hartako aldizkarietan: «Napararra», «Gure Herria» eta «Euskal Etnalea» izenekoetan batipat. «Nafarroako erranera» berriz, «Euskaltzaindiaren itzaldiak» izenekoan argitaratu zituen. Sonatua egin zen aldi hartan «Larreko» izenordea.

«Larreko» idazlanak ezagutu nahi dituenak jo beza «Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca» izeneko liburura. Beronen seme Aingeru Irigarai, euskaltzainak argitaratua dago Iruinean 1958 garren urtean.

Idazkera txukun eta joskera eta esaera jatorreko idazlea dugu «Larreko». «Berdinik gabeko prosa du Larrekok» Lafittek «Herrian» dioenez.

—oOo—

Oso ezaguna dugu Fermin Irigarai Goizueta bai sendagile eta bai idazle bezala. Nahiz eta 1949 garren irailaren 3 an hila izan. Oraindik bizi da haren oroitzapena Euskal Herri osoan.

Zor diogun omenaldi bat egitera goaz Auritzera. «Larreko» zenaren oroitzapena biziaraztea eta gogoraztea gure onerako zaigu. Gogaiturik eta sakabanaturik aurkitzen gara euskaltzain idazle asko. Denok berpizteko eta elkartzeko gerta dedila igandeko jaiak.

—oOo—

—oOo—

ERRIALDE

NERE BORDATXOTIK

Irakurle danok ondo dakizutenez, gure biotzeko lagun Uztapide bertsolaria gaixo dago aspaldian. Gaitzak menderatu zuenarik, txori abeslaria ixildu leurrean gertatu zan.

Gure errietan zear aspalditxoan ezta entzun bere abotsik (bozik). Zorionez ondo ladijca ere, etxe aldeik ibili bear.

Baiezko erantzunik ezin eman etortzen zaizkion dei ugari.

Lezoko Martzelino Manterolak gogoan du Uztapide. Bertso batzuk moldatu ditu, ta guri bidali dizkigu. Ona zer dion:

—oOo—

Euskal bertsoen zale geranok orain bai illun gaudela, jakin zazute Uztapidetzaz mintzatzen asi naizela. Bertso auetxek eskeintzen dizkat oroigarritzat bezela, baldin kalterik egingo banu arren! barkatu dezala.

—oOo—

Ondoeza Anoetako frontoian nabaitu zuen Uztapidek. Kantatzen ari zala, bere lanean.

Manterola lezoarra testigu zan, beste asko bezelaxe. Irakurri datoren bertsoa:

Zer utsunea gure plazetan aurtengo uda guztian, gure Manuel gaitz gaitzo batek artu baizuen azpian; naigabe ori neure aurrean gertatu zan Donostian, Anoetako pelota plazan, lereillaren zazpian.

—oOo—

Kezka bat nabaitzen du Lezoko bertsojartzaileak.

Berriz Uztapideren bertsoak entzuten lanik izango ez ote duen kezka.

Kezka ori egi biurtuko ezpalitz ez giñake gutxi poztuko.

—oOo—

Txit borondatez eskeini zigun biotz zabal da xamurra, txalo berotan artu genduen orduko azken agurra. Geroztik duen ixillaldia ezta nai bezin laburra, berriz asiko ez ote zaigun badaukat naiko beldurra.

—oOo—

Ondoren datorren ontan, sentitzen duen iritzi bat agertzen du Lezoko bertsojartzaileak.

Lagun urkoari laguntzeko beti presto egon bear degula, dio. Jokaera oni bizirik eutsi bear genio-kela.

—oOo—

Lanerako gai eztan gizonak eztauka irabazirik, galdera auxe egiten det nik gauzak ola ikusirik: bertsozko jai bat zertan jarri ez maitasuna erakutsirik? projimoaren laguntza orri

—oOo—

Gure belarrietara iritxi danez, adiskide Manterola, Donostiko Turismo Etxeak badarabilki zer bait eskuartean.

Jaialdi bat eratu asmoz dala us-te degu datorren ill ortan ospatze-ko.

Onela bukatzen du Manterolak:

—oOo—

Jesus maitea, une onetan zuri erreguka nago, eskari onen erantzun ona zure eskuetan dago. Doia eta borondatea eman zenizkan lenago, orain indarra eman zaiozu kantatu dezan geiago.

—oOo—

Ez genduke besterik nai. Alaxe izan dedilla.

—oOo—

Iraillaren amargarren egunean, Naparroako Burgeten, Fermin Irigarai "Larreko" zanaren oroime-nez jaialdi eder batzuk ospatuko dira.

1869'garren urtean jaiotako izen-datu degun erri ortan.

Gaurko euskaltzain (euskal akademiko) Aingeru Irigarainen aita zan.

Naparroa guztian oso ezaguna sendagille bezela, ta Euskalerrri osoan euskal idazle modura.

Batxiller ikasketak Iruñan bukatu zituelarik, Zaragoza ta Madrid'ko Unibersidadetara jo zuen.

Doktor maila artu zuen sendalartizan eta zirujian (doctor en medicina y cirugía).

Bera Bidasoan eta Iruritan sendagille izana zan.

1915'garren urtean, Iruñako Eritegi Probintzialera (Hospital Provincial) aldatu zan ebakuntzalari (cirujano) bezela.

Gerora bertako zuzendari nagusia izan zan.

—oOo—

Beste batzuren artean, auek dira erderaz argitara eman zituen liburuak:

Topografía médica del valle de Baztán" eta "Guía médica del intérprete de milagros y favores". Liburu onen aurre-itzak Marañoñ ospetsuak idatziak dira.

Euskaltzale zintzo ta purrukaturik izan bada, uraxe beintzat bat. Gorputz-anima eskeini zan gure izkuntzarenana.

1949'garren urtean il zan, Iruñan.

—oOo—

Gerra aurrean Donostin argitaratzen zan "Argia" euskaldun astero-koan, astero agertu oi zan "Larrekoen" lana.

Zaletasun biziz irakurri oi genduen uraxe. Etzuen gipuzkoar euskalkia erabiltzen, naparra zalarik, baiña euskera mendean zuen. Au da emen bearrezkoa.

Eragozpenik txikiarik ez genduen aurkitzen aren lanetan; letra bat etzitzazigun gelditzen ulertu gabe.

Erri-kutsu bizia zuten aren idazkiak (eskritoak).

Erderarekin kutsutu gabeko euskaldunak jotzen zituen benetako

maixu bezela. Aien euskera zala aberatsena, esan oi zuen.

—oOo—

Berdin-berdin pentsatzen degu "Larreko" zanak eta guk.

Eratat arrotuak gaur. Baserriar eta menditarak utsaren urrengoak dirala esanaz eta idatziaz ari gera "txitxi" baiño arago. Desteña ta burla besterik eztegu aientzat.

Eta ain gogozkoa degun kaletar euskera ori, akerraren adarrak baiño biurriagoa ta aldrebesagoa da amarretik zortzitan. Gaurko zenbait euskal liburu irakurri besterik eztago.

Bizi balitz zer pentsatuko ote luke "Larreko"?

Seguru asko auxe: munduko izakirik parregarrienak euskaldunak gerala.

—oOo—

Euskaltzaindia (Akademia) da Burgeteko jaialdien antolatzaile.

Babesle: "Príncipe de Viana" Alkartea.

Taldeko meza, goizeko amaiketean. Amabietan, dantzariak aurretik dirala, oroitarriaren agerpena, "Larreko" jaiotako etxe berean.

Amabiterdian, euskaltzainen bilera. Iru izlari mintzatuko dira "Larreko":

Aita Damaso Inza. Pierres Lafitte kanoniku jauna. Eusebio Erkiaga jauna. Eztago zalantzarik "Larreko"?

buruz gauza jakingarriak esango dituztela.

Arratsaldean euskal erromeria izango da.

Deia artu genduen guk ere, baiña eziñak ondutzen gaitu.

Gorputzez ezpada ere, gogoz an izango gera irailaren amarrean "Larreko" jaiotako errian.

Zaarren izenik eztegu entzun nai orain, baiña aiek biderik urratu ezpalute gaur etzan euskal idazlerik izango. Etzazutela dudarik egin.

Baxarri



YOGUR GURELESA
GOGOZKOENA




Bizkortasuna

Serbitzu egoki baten izena. Gure jardun guztietan beti elburu bera: Arazo bakoitzarentzat erantzunik onena. Egutegia gure lantokietan eztertzen, zuzentzen eta konpontzen ditugun eginbeharretako bizkortasuna

Eta gure serbitzu balioekin batea arrerarik atsegina Etor zerori eta ikus

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
SERBITZU BIZKOR ETA ATSEGINA



ECHABE

ETXABEAREN Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 24

ZARAUTZ

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44

BILBAO

Munduko berri

Uztailaren 29an galestar abertzaleen eta poliziaaren artean inkontra bat izan da Bangor-ko Unibertsidadean (Gales); eta bi polizia zauriturik gertatu dira. Londres-en "Lord Chancellor" den Hailsham-en etorrerak sortu ditu istiluak.

Lord Hailsham galestar mugimenduaren etsai porrokatua da, eta hitz gogorrak izan ditu berriki, bai IRA-ren kontra, bai "Cymdeithas yr Iaith Gymraeg" (= Gales-eraren Elkartea) organiazioako arduradunen eta buruen kontra. Aste hauetan, eta egunean "ordubetez bakarrik" galesera erabiltzen delako, telebista-zergak ez ordaintzeko saildi handia egiten ari dira galestarrak.

Bangor-ko Unibertsidadean Kondaira-Erakasle den Tudor Jones-ek, bestalde, beste aurkabide bat asmatu du eta bultzatu: klaseen eta kaminioen panelak galeseraz eta ingelesez batera agergeraztea.

Abertzaleen "estremismo" hau irents ezin dezaketenez, hankaz gora botatzen dituzte galeserazko parteak; eta segidan, arropostuz, hankaz gora beste erdiak ere galestarrak, Bangor-en, horrela, kale eta bidarte askotan ez dago gaur batera panelik.

Europako hiriburua izan litekean Bruselan ere horrelako zerbait gertatzen da maiz.

—oOo—

Bolibiako hiriburua La Paz da. Eta honetatik 70 kilometrotara Tiawanaku deritzan hiri zaharra dago; alegia, Aymara-tarren antzinako erresuman, XIII mendera arte, hiri nagusi izan zena. Gaur 4.000 lagun baizik ez dira bertan bizirik, denak indioak.

Jean Provençères-ek berriki azaltzen zenez, aymara da oraindik eskualde hartako "mintzaira bakarra". Eta "kondairan lehenengo aldiz", bertakoek diotenez, eta Laja-ko apezpikuaren laguntzaz, baserritarrez osatuak aymara gizarte-multzok sortzen ari dira, ekonomiako oinarritan, Tiawanaku-ko jesuitak; eta eliza berri horretan, liturjiak eta joerak oso berriak, aymara hartu da mintzabidetzat.

—oOo—

Joan den Abuztuaren 5ean, gaueko ordu bi terdietan, bomba bat lehertu da Rennes-ko estazioan. Biharamunean F.L.B.-ak izenpetutako gutun bat iritsi zen "Ouest-France" kaseta-bulegoetara: "Bere helburuari beti atxikita, bretoinek ez dutela bide bakar bat baizik beren arazoak konpontzeko: Bretona Askatua".

Fraintziako gobernuak, bestalde, hauz politiko sakon bat gerta zedin bildurrez, F.L.B.-ko 55 detenitu (1966-1969 urteetan harrapatuak) tribunaletara gabe atara ditu zuzenean gartzelatik kalera.

L.

Txekoslobakiaren ondamendia

Kritikaren beharra

Horrelakorik gehiago, ez omen zen gertatuko. Husak lehendakariak berak agindu omen zion Frantziako alderdi komunistaren buruzagietako bat den Leroy jaunari. Itza, gauza utsa, bihurtu da. Joan zen illean eta aurrekoan Txekoslobakian juzizio politikoak izan dira. Txekoslobakiako udaberrian lan egin eta zerbait berrikerik ere sortu zutenak ere egun gorriak ari dira pasatzen. Demagogia egiterik ez nuke nahi. Erraza da izan ere sozialismo izeneko sistema kritikatzeko. Askok eta askok Txekoslobakian gertatutakoa aipatzen dute bidenabar sistema kapitalista onartzeko eta ez beste ezertarako. Ez nuke erru hortan erori nahi. Barne barnetik, sozialismoaren barrutitik itzegin nahi nuke.

Eta egia esan, sozialismoa maitate duen batek ezin dezake inoiz ere Txekoslobakian gertatzen dena onar. Beste modu batetako sozialismoa nahi duten gizonak espetxeratzen dituzte. Beste errurik ez dute, beste modu batetako sozialismoa sortu nahi izatea, bakarrik, alegia. Gudarostearen bidez nahiz eta sozialismo izeneko gudarostea izan, sozialismoa ezin ditekela jaso uste ez duten gizonak zigortuak izan dira sozialismoa beraren izenean.

Horrelako gauzak ez dira behin bakarrik gertatu. Azkeneko lau urte hautan txekoslobakiarrek eguneroko ikusten duten gauza da. Estalinismoak gogor dirau. Eta horrek irauten duen bitartean sozialismoaren bideak itxita gelditzen dira. Hori sozialismo ukatzen duen sistema bat besterik ez da.


Azkeneko lau urte hautan izugarriko garbiketa izan da Txekoslobakian. Garbiketa hori alderditik bertatik asi da 1969 gn. urteaz gero milioi erdi bat alderditik botea edo izan da. Gauza erraza izan da. Noiz behinka bederen alderdiko karneta edo txartela berriak egin behar izaten da. Berritze garaia iristen denean, bati eta besteari txartela ukatzea benetan gauza erraza da. Txekoslobakian horixe egin dute. Milioi erdi bat, 1968 gn. urtean zerbait berezia egin zutenak alegia, kanpoan gelditu dira. Gazte asko ere kanpoan gelditu da. Gaur

egun, batz bestea alderdiko jendeak 50 amar urte du. Jende zaharra dago beraz bere barnean. Bestalde, %-eko 26 bakarrik da langillea. Partidua beste talde sozialeraz osaturikako erakundea da beraz. Leku ederrean zegoen langillearen agintaritzak!!

Ogeitamar milla jakintsuk beren lana galdu dute. Horietatik ogei milla esku lanean ari dira. Lehen Unibersidadeko maixu zena orain taxista, jardineru edo tornero ariko da. Beste amar milla aruntz eta onentz lan billa omen dabil. Eta adiskideok, hau dena sozialismoaren izenean egiten den gauza da! Irrati eta izparringietan ere lan egiten zuten askok eta askok ere beren lana galdu dute. Sortu zen utsunea ikaragarria izan zen. Zuloa nababait bete behar eta fazismo garaian fazismoaren aurka erabillitako programez betetzen zuten. «Kontra reboluzio kulturala» egiten ari da Txekoslobakian. Lehengo dena irentsi nahi dute.

Jo eta ke ari dira jakintsu taldea desegiten. Sistemak ondo daki alderdiaren barruan oso jende jakintsu gutxi dagoela. Sistemak ondo daki jakintza aldetik oso txiro arkitzen dela. Horrelakoak kanpoan daudela ondo daki. Beraz horiek desegin nahi ditu. Arriskurik aundiena, gaurko horiengandik datorriko. Hauek bai dira, izan ere, sozialismoaren bide berriak irekitzen asi zirenak, pentsa molde berriak sortu zituztenak. Horiek izan ziren alderdia bera ere berritu zutenak. Horiek isilerazi behar dira beraz. Gaurko buruzagiek indarra dute batetik eta gizon jakintsu hauen popularidade gutxi izatearen laguntza dute bestetik. Gizon bat Unibersidadeko buru izan arren popularidadetik gabeko gizona izan ohi da, gehienetan behintzat. Eta horixe bera gertatzen zaie Txekoslobakian epaitu dituzten gizonak. Beraz buruzagiek lasai xamar joka dezakete. Jendeak edo erri xumeak ez baitu reazonatuko. Epaiketa hauek direla eta ez da manifestazio ikaragarririk izan. Buruzagiek ondo dakite bai zein eta nola zigortu.

Alde batetik jende eginkorra zigortu eta bestetik erri xumea zer-



Kaiolatik irten zai

baitez asetu. Zerbait, hori jorنالک jaso, ekonomiako erabaki popularrak artu eta jatekoa eta jatzeko gauzak ugaltzea izan ohi da. Jendea horrela baretzen da.

Baina erabaki horiek luzaz iraun ezin dezaketen gauzak direla garbi dagoen gauza da. Urte batzuk pasako dira baina berriro ere sortuko da jende berria. Berriro ere burokraziaren sistema kolokan jarriko da.

Pragako udaberriak bi gauza behintzat erakutsi dizkigu: bat, sistemaren barnetik, partiduaren tekeela. Partiduaren kide ziren perren barnetik aldaketa etorri ditzon mugitu zuten sistema, burokraziaren sistema atzerakoia. Hor bertatik sortu zen bide eta esperantza berria.

Bigarren, demokrazia zer eta nolakoa izan zitekeen zerbait bederen erakutsi digute. Sistema kapitalistak dituen askatasunak eta Txekoslobakian izan ziren eztabaidak, jendeak parte artzeak eta abar, elkarrekin ezer asko ikusi ez duten gauzak zirela garbi gelditu zen.

Esperantza berria, berriro ere diot, sortu zen.

Lau urte igaro dira. Harez gero, lehen esan dudana bezala, dena estaltzen eta iresten ari dira egiñalean gaurko buruzagiak. Baina nere ustez ez dute lortuko.

Ezin dezake sistema honek luzaz iraun. Alaz ere, badugu zer ikaririk. Badugu sistema baten jatorria zera zer eta nolakoa den jakiteko bide.

Benetako sozialista denak ezin dezake inoiz ere onar Txekoslobakiako sistema. Kritika egitean eskubi indarrei laguntzen zaiela esaten dutenak zenbait kristau atzerakoik bezala jotzen dute. Itsukeria eta buru itsi edo integrista eskubian nahiz ezkerrean arkitzen da. Eliza kritikatu ezker berehala eransten die bati «anatema»: hori ez da kristaua. Gaurko sozialista sistema kritikatu ezker ere berdin gertatzen da. Bat berehala eskubi indar bihurtzen da. Anatema berehala izaten du bere gain. Integristak nonahi nagusi...

J. ELUSTONDO



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR. GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459 DONOSTIA

BOUTIQUE




Gazteen, neska - mutilen, Boutique

13 Agosto, 5

Urrutizkiña: 41 78 15

DONOSTIA




soberana FRANKIE

JOSEBA ARZAC karia

Balleneros, 20 Entlo - DONOSTIA - Urrutizkiña 41 88 80

-Etzegillentezat berezia
-Neurri guztietako arraskak



Cubetas GASTRO - NORM

ZINE ? ZINE

Azterlaritzaren Inguruan

Urte onen asieran, «Dirección general de Cultura Popular y Espectáculos» delakoak, txosten antzeko agiri bat argitaratu zuen zineko azterlaritza edo zensurari buruz. Agiri au irakurritakoa, gure pelikuletan argi izpia sar zitekean zirrikitu bakar eta estua itsi digutela iruditzen zait.

Agiria ez dugu emen bere osotasun guztian azalduko, baina eritzi naasi batzuen artean, «neurri gabeko maitakeria», «pornografia», eta «gizartearenganako dotrina kaltegarriak» aipatzen ditu.

Ori dela-ta, arduradunek erne egon eta taluzko neurriak artzakoak omen dira, erbesteko zine lizuna eta gizarte naiz politika alderditik kaltegarriak diren pelikulak eragozteko. Baina bestetik, neurri auek ez dira zineko ikuskizuna goitik beera ondartzeko modukoak izango.

Lan zaila benetan, gaurko egoeran itz auek duten zentzua eza gutuz gero, eginkizun ori betetzea.

Agiriak geroxeago, bi eratako neurriak (gu babesteko dionez) artuko direla esaten du. Zilegi agiri edo «calificación moral» delakoen zorrotztasuna indartu eta horretarako, bear duen antolaketa eskuratu azterlaritzari. Emazortzina laguneko batzarde bi osatuko dute zenbait tegegizon, apaiz, eta errigizon ospetsuk.

Ondorenean, 1971 urtean azterlaritzak egindako lana, onela adierazten du:

au ere esan bearrean gara. Aurre azterketa dela eta zinegileak azterlaritza onetaz dituen ezaupideak direla, gero eragotziak izango lirakeen pelikulak egiteko biderik ez dago. Orregatik ez diegu Espainian egindako tilmei oztoporik jartzen, kanpoko askori jartzen dizkiogun antzera».

Ondo esana noski, azterlaritza ez gertu dakiaren zentzua. Ez ordea guretzat. Bai bait dakigu zer izango litzakean miloi batzuz xautu ondoren pelikula eragozteko.

1963 urtean, zineko azterlaritzaren araudia argitaratu zenean, bazirudien irekitasun eta askatasun pizka bat eskaintzen zuela. Gurizearen etsairik amorratuena ere ori zioten. Araudiki bi alderdi on zituen.

Onartuko ez ziren pelikulak aurrez garbiago adieraztea, azterlari bakoitzaren eritzi pertsonalei indarra kenduz, eta zenbait gai erabiltzeko askatasun apur bat gelago.

Aurtengo agiriak ordea, zirrikitu txiki ori isten du, urrats bat atzera emana.

Azterlaritzarekiko, zenbait motakotako pelikulak ikusteko, ez dugu bear bezalako eziketarik nonbait. Baina ori orrela balitz, nor da errudu? Eragozpede oriek in ez aal gara berrira ere ezigabeak izanen?

Gaurkoz, estatu guztiko zinegintzak badute azterlaritza. Egi da. Baina neurri zorrotzeak, geroari begira ez ahal dira oztopo, ikusle bakoitzaren azterlari biur dadin? Ikusle bakoitzak ongarri zaiguna, bakarrik, geure jakitez aukeratzera eldu bear dugu. Autozensura batera alegia.

Gaurkoz, pelikula sail andia dugu azterlaritzaren mugak gainditu ezinik. Eta ez nolanaiko pelikulak gainera. Berlin, Venecia, Valladolid, Cannes, naiz Donostiako zine jaialdiaren saritutako asko bait dago. Ikus besteak «Une femme est une femme», «Le mani sulla città», «Angelgo gudaketa», «Blow Up», «Teorema» eta beste pelikulaz zer gertatzen den.

Politika eta zine aurrerako arloetan nabarmentzen diren pelikulak berriz, ez aipatzea hobe.

Esandako film oriek guztiak, ez ziren azterlaritzaren eskutara elduko bear bada, baina beldur naiz bazituzku artu duten ezeko berrira ez arteagatik, besteak ez ote diren azterketa inoiz urbiduko.

Bestetik, aipatutako pelikula batzuk, OCIC (oficina católica internacional de cine) elkarteak, saritu egin ditu.

Eta au guztia, ez aal da irrin-garri?

UNANUE-TAR LABIEN

“Xenpelar”

BERTSO - PAPEREN SARIKETA

Epilarien erabakia:

«Donostian bildu dira 1972 urteko Xenpelar sariak banatzeko Euskaltzaindiak izendatu dituen erabakitzaileak eta honela egin dute:

Lehen saria: «Sortetxeari». Egiilea: Xalbador.

Bigarrenena: «Zar-saridun batek esanak». Egiilea: Joxe Ayerbe.

Irugarrena: «Deabruren bat badago beti gertu zirikatze»- Egiilea: I. Olea.

Donostian, 1972-VIII-27.

Bildurik firmatu dutenak: Alfonso Irigoyen, Juan Maria Lekuona, Fernando Artola, Michel Itzaina.

Ezin etorria adierazi du Mariano Izeta-k eta Juan Garmendia kanpoan gertatu da».

OHARRAK:

1. Sariaketa hau Euskaltzaindiaren ardurapean eratu da, Donostiako Turismo Etxearen diru laguntzarekin.

2. Sariak 12.000, 8.000 eta 5.000 pezetakoak dira.

3. Sariak Donostiako Euskal Festetan banatu dira.

ESPAINIAKO ZINEA

Pelikula egiten asi baino leen, 131 pelikula aztertu du. Auetatik 99ontzat artu du, baina 600 ikuteren bidez, aldatutakoak eginda gero. Beste 32 lan eragotzi du, naiz orietako 15ek, zati batzuk era ezberdineran izan balitu, baimena bereganatuko lutekeela aitortu.

Bukatu diren 70 pelikula onartu du, baina ez osoki. 42ri aldatu arazi dizkio zenbait puntu.

KANPOKO ZINEA

Guzira, 373 pelikula aurkeztu diote azterlaritzari. 267ri baiezia eman dio, auetako 137 gurazearen menpetik pasa ondoren. Beste 106, zeero eragotzi du.

Zenbaki auek kontuan arturik, badirudi Espainiako azterlaritza biguntzen asia dela, baina agiriaren zati batek botako dizu ankar gora uste ustel ori: «Espainiako zineaz, gauza

ELKANOREN 450 garren urtea

450 urte Juan Sebastian Elkanok munduri jira-bira osoa eman ziola tuko du mundu borobilari buelta osoa eman dionak berak.

Antzeman zioten gure antzinako zaharrek ere munduari borobila zela. Aristoteles berak ere asmatu zuen arrazoi bidez lurra borobila zela. Baina jira-bira ibili dabilela Galileok sumatu zuen.

Baina olerkariak, filosofoak eta geografoak sumatu zutena itsasgizonek behar zutne frogatu. Kolon eta Magallanes beren asmoa bete gabe geratuko dira. Elkanok neurituko du aurrenekoz lurbararen gerria. «Mendebaleetik abiatu eta Ekialdetik itzuli gera etxera», aitortuko du mundu borobilari buelta osoa eman dionak berak.

Donostian, berriz, hitzaldiak gertaera harrigarri honen inguruan.

Ez zen berrikerakoa izan Elkanoren lana. Merezki du ondorengo omena.

APAOLAZA

ERLOJU ETA BITXITEGIA



Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA
Urrutizkiñak: URRUTIXUA
Etxekoa 65 19 60 Urrutizkiñak
Lanolakoa 65 19 33 Lanolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

TRANSPORTES **azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostia'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo-ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381

UDAKO IKASTARO UNIBERTSITARIA

Deustuko Euskal Kultur Mintegiko gazte batzuek antolatutako joan den hilaren 1etik 20ra Loiolan izan da lehenbiziko Udako Ikastaro Unibertsitaria. Ikastaro honen eta bere antolatzaileen meriturik handiena hauxe izan da, ene ustez: ikastaroa izan dela eta izan zedin lan itzela hartu dutela. Eman zaio, beraz, hasiera eta hurrengo udetan egin daitekeenenerako aurtengotik zenbait irakatsi jaso ahal iango dugu. Presaka eta berandu ibili direlako —bestela ibili ahal zitezkeen?— ez dira gauzak behar bezain ongi atera. Ikasle gutxi eta sail gutxitakoak bildu ziren; bakterekoak, hotz, Hikuntza eta Literatura ikasi nahi zutenak. Arrazoi horregatik eskolak emateko prest zuden zenbait irakasle, nori eman ez izaki, eskolarik eman gabe gelditu ziren.

Eskolak eman dituztenak hauek izan dira: Larramendi, Intxausti, Irigoyen, Altuna eta Garate Roman. Bost hauek hiru azkenek egunero eman dituzte; bi aurrenekoak hiruzpalauna, nork bere gaiari buruz. Garate Materialismo Historikoi buruz mintzatu da; Irigoyenek Euskal Literaturako puntu batzu nkitu ditu eta Altunak testu batzuen azterketa egin du. Ikasle-irakasleen arteko giroa ezin hobea izan da eta guztien gogobetekoa. Esan behar da ere eskolak emateko han aurkitzen ziren irakasle guztiak joaten zirela beretako bakaitzak ematen zituen eskoletara, ikasle eta irakasleak elkarrekin mahaturik, eta giro eder hartan sortzen ziren elkar hizketak eta etabaidak oso ernagarriak izan zirela.

Goizetan izaten ziren eskola horietaz gainera, arratsaldeetan halako «topaketa» eta hitzaldi eta bestelako ekintza batzu ere izan genituen. Hitzaldiak, oher ez banago, hiru lagun hauek eman zituzten: Donato Unanuek, Mitxelena eta Barandiaranek, inguruko herrietatik ere zenbait jende etortzen zelarik. Bilbaoko zineleri talde batekin ere izan genuen elkartzet bat; Zumaiain Beobide zenaren irudi erakusketa ikusten ere izan ginon arratsalde batean; Debako Arte taldeak daraman lana ere geure begiz ikusi ez ezik, beren asm oeta ametsen berririk jakiteko aukera ere izan egin genuen txangoa izan zigenuen; Ekaingo hartzulora tzaigun, agian, denetan interesgarriena: han ikusi genituen lanean hiruzpalaun gazte Barandiaran eta Altuna Jesusen gidaritzapean; Azkoitiako Intxausti Jauretxea erakutsi eta etxearen berri ugari eman zigun Uri jaunak. Jauretxe honetan bertan eman zitzaion bukadere baten bidez. Han agurera ikastaroari kontzertu tu genituen, besteak beste, Alvaro del Valle eta Bello Portu jaunak. Alde onak izan ditu, beraz, ikastaroak beste zenbait hutsarte handiren artean. Beste batean hutsak bete badaitz, ikastaro ederra izan dezakegu. «Ekinak erdia egina» duela egi bada, ona izatera iristeko behar duenaren erdia egiña dago. Beste erdia nork ipiniko?

GARRO

IAUXE DA MUTRIKU!

— 1 —

Gipuzku eta Bizkaiko mugan ARNO-mendi magalpera, Baso ta mendiz inguratutik kantauri itsas aldera. Kabitxo polit bat agiri da jostaillu baten antzera, Naiz orma zaar ta aldatzak izan kaleak gora ta bera, Erri politik iñun badago aietako bat zu zera.

— 2 —

Zoragarriko Mutriku onek biotza digu alaitzen,

Bere bazterrak ikusirikan bat gelditzen da txoratzen. ATXUKALETIK itsas-portua ikusgarri da azaltzen, Itsas-ontzi ta batel txikiak itsas-barean jostatzen, Mutriku bere edertasunak garbiro digu goratzen.

— 3 —

Gure erritar arrantzaleak badute koipe ta gatzta, Lagun artean umore ona bertso-zaar, kantu ta dantza. Bainan alare izaten dute arrixku aundi ta latza,

Itsas aserre amorratuak beldurgarriko ekaitza, Ogi pixkabat irabazteko zer bizimodu garratza!

— 4 —

Kresal-usai-dun erri maitekor paketsu ta ameslari, Itsas ta leor, alde guzitan, beti aidira kantari. abesti eder ugari, Zorionsua kantuz bizi dan erri maitagarri ori, Jarrai ta eutsi Mutrikuarrok lengo oitura onari. Andonegitar Ziriako

MUTRIKUKO KALBARIOA

"Kristo zulotik Arno bitarte daukagu Mutriku erria, Gipuzkoako txoko txikia, baiñan biotzez aundia".

Ola dio abestiak, Madalen bezperan Gipuzkoako irrati zaleak entzun aal izan duten doñu jatorraz.

Eta Arno barrenean, Mutriku erriaren gainean, Kalbario mendi tontortxoan, Santo Kristoa, baseliz aundi ta eder bikainaren barrenean. Bertako jai nagusiak: irailaren 14ean eta urrengo igandean. An izaten dira bertsolari, arri-jasotzaille, aizkolari, saltakari, bolari, tiro-plato eta abar; Arno aldeko larra-beiak ere bai iñoz... Izan ere, bada Mutriku euskal festetarako zaletasuna!

Baiñan mutrikuarren kristautasunean du zer ikusirik garrantzitsuenena. Mutriku beti izan da kristau erri jatorra. Giza emakume zintzoak ugari sortu ditu. Apaiz, fraile eta monja edozeinbat. Mutrikuo eleizkizun eta abestiak! Badira berrogeitamar urte, frantziskotar fraile batek au idatzi zuala: "Egia esango det; nik leenagotik otoi egiten jakin izan ez banu, orduantxe ikasiko nuen". (Agustindar monjen elizan, Jesus Nazarenoaren omeneko elizkizunean, alegia). Eta orain ez dira gutxiago.

Gaur beldur gabe esan dezaket. Kalbarioa da Mutrikuo baserritarak eta arrantzaleak geien alkaritzen dituen leku santua. Zenbat meza ta errogatiba... euria eskatzeko, eguraldi ona eskatzen, eskerrak ematen... ezbeurraldietan eta abar. Urtero urtero esan oi dute baita "arriaren kontrako meza" ere. Ta aspaldiko urteotan, inguruetako errialdetan alako arrite kaltegarriak izan diralarik, Mutrikuo sailletan ez degu ezagutu olako arri-jasarik.

Ikusgarriak dira Santa Krutz goia eta biaramona. Ogetaka mezak! Itsasontzi nagusi bakoitzeko meza bat gutxienez, eta gainontzekoetak! Erri osoa (baserritar, kaletar, eta arrantzale), otoitzean eta abeslari, doñu ederrak kilometro eta geiangoan entzunarazten dituztelarik. Neronen etxea kilometro ingurura dago, eta meza batzuk ederki jarrari nitzake bertatik.

Esku zabalak izandu dira mutrikuarrak. Bai, ba, meza emailleak, laguntzailleak, garbitzailleak... zozertxo bear. Eta etxea ondo eukitzea ere kosta: mendi gain aize-tsuñ, itsasoa bistan baitago...

Urte batzuk dirala, gure artetik joan zaizkigun AITA JOXE, prantziskotarrak, Egañatarrak, eta an inguruko baserritar Kalbario zaleak amaika lan egin izan zuten, Kristo Kalbarioak saritu zituen itzaropenez!

Oso aundia da, bai, benetan, Kalbario Mutriku duen zera.

Ona, Santa Krutz jaiko meza nagusian erriak abestutzen dituen hertsuak:

Itsas aldera begira zaude "Jaungoiko mendi" gainetik, gure erriari argi egiñaz Gurutze Santu ortatik. Kalbarioko Jesus laztana! erruki zaitez gugaitik, gure neke ta ezbeurratan ez utzi zure eskutik, itsas ta leor gorde gaitzau zoritxar guzietatik.

Aita Luis Zubizarreta

Esker ordainez, gatozkizu gaur, alaitsu eta kantari, pozaren pozez otoitz egiñaz gure Jesus maiteari. Jaso ditzagun gure biotzak zeruetako Aitari. Goi-goitatik lagundu dezan Mutrikuo erriari. Bera dalako itxas ta leor Mutrikuarren Zaindari.

AUTOSERVICIOS

Urquiri

Janari, Mertzeri eta Izoztutako salgaiak

Coronel Rubio, 4
Vice-Almirante, 1

Urrutizkiña: 60 14 19
Urrutizkiña: 60 14 50

MOTRIKU

CONDAL

BAR ETA JATETXEA

Arrizabalaga'tar Nikolas

Barcelonan, euskaldunen jatetxea

Rosellon, 202

Urrutizkiña: 215 10 06

BARCELONA

EGASAN

TERMOPLASTICOS, S.A.

ETXE ETA LANETARAKO PLASTIKO LANAK

Urrutizkiña: 60 14 61 eta 60 14 56

MOTRIKU

Gasolinera SATURRARAN

KOIPETZE ETA GARBIKETAK

MOTRIKU-ONDARRU BIDEAN

MOTRIKU



ATXUKALETIK

Mutriku duen begiratokirik politena dugu Atxukalea. Erriaren bihotz-bihotzean aurkitzen da, Kantauri itsasoari aurpegi emanaz. Gure begiratorik ortatik baina itsasoa laino ikusten dugu.

Ontzidi ederraren jabe dugu Mutriku. Gure arrantzale bulartsuak, anzinako txalupa aiek bazterreratuaz, aurreapenez ongi ornitutako ontzien jabe. Baina, aurrerapenez oiek, diren aldetik direla, lanik asko egin da eta gure itsaso au arrainik gabe ia utzia dute. Eta arrai urritze ori dela ta, gure arrantzaleak urrutiko itsasoetara doaz, Afrika aldera. «Boga eta boga» eginaz ez ordea; lehen ere «boga bogan» Indietara joaterik ez zen eta.

Afrika aldera joan behar orrek badu bere kezka. Eta ez txikia ere. Zortzi edo gehiago egun eta gau, makiñak eraginean dituztela, bideak egiten dira gero! Eta ara joatez bakarrik ez dezagun uste izan «koblada» arrai arapatzen denik. Emen bezela, ezak eta baiak dira an ere. Ongi arrantzazera egokitzen denak, egindako lanaren ordaina izango du; baina eratzten ez denak?

Gure iritzi apalez, arrixku aundiegiz jokatzten dute emenko ontzi jabeek. Badakigu jakin emendik ezer ez danetan joka bearra dela nahi ala nahi ez. Ekonomistek diotenez ordea, beste bide batzuk urratu bear dira. Ontzi jabeak elkartu eta indartu egin beharra dagoela. Afrika alderuntz jo behar au, ez litzake arrazoi makala izango ekonomistek dioten bide ortaruntz urratsak emateko.

Guk esan beharrik ez dute, Afrika alde ortan amaikatxo ontzi izaten direla elkartuta lan egiten dutenak. Eta gertatzen datorrenari aurpegi eman behar zaio, geroak erakusten emango du. Geroa beranduegi izatea gerta ditekete ordea.

ATXUKALE

ARRAI KONSERBA ONAK

Vda. e Hijos de Domingo Arruti

ETXEAK EGINAK
— MOTRIKU —

SALA DE FIESTAS

KAI - KLUB

Jaki erre eta diskoteka

— MOTRIKU —

VITORIA

ORDULARI ETA BITXITEGIA
ZILLAR KONPONKETAK

Urrutizkiña: 60 13 60

— MOTRIKU - ONDARRU —

ANDONEGITAR LORE

JAN EDARI DENDA

Urrutizkiña: 60 14 60
— MOTRIKU —

ITXAS-KIROLAK

Zumalabe

ARRANTZA ETA EGURAZTETARAKO ONTZIGILLEA

Agustin Donearen Kalean, 15 Urrutizkiña: 60 14 14
— MOTRIKU —**Juan Antonio Uranga Ucin**

PINTAKETA ETA PAPER MARGODUNAK

Jose M. Alzibar ibilbidea, 82 Urrutizkiña: 60 13 79
— MOTRIKU —**Arizmendi
Denda**

Janari eta esku-erakutsiak

Vice-almirante Churruca, 25
— MOTRIKU —**KONTXI**

USAITEGIA

Koronel Rubio, 3
Urrutizkiña: 60 13 37
— MOTRIKU —

AUTOSERVICIOS

LARREINA

Pintura, Paper, Margodun, eta Krioletarako salgaiak

Puerto Kalea, 2 Urrutizkiña: 60 14 06
— MOTRIKU —**Novedades RUIZ AZKUE**Koronel Rubio, 7 Urrutizkiña: 60 13 66
— MOTRIKU —**Tejidos RUIZ AZKUE**Koronel Rubio, 5 Urrutizkiña: 60 13 66
— MOTRIKU —**Transportes URREISTI**

Ibaibarraiga Kalea

Urrutizkiña: 60 12 91
— MOTRIKU —**Zidargin**

AKEITEGIA

Beti kafe ona, edaririk onenarekin.
Ongi etorri jaietan

— MOTRIKU —

ANDONEGIJOSKINDEGIA
GIZA-EMAKUMEENTZAKO, GAUR-GAURKO JAZKI EGIÑAKGral. Moskardo Kalean, 2 Urrutizkiña: 60 14 60
— MOTRIKU —**ELBA**

PAPERTEGI ETA LIBURUTEGIA

Moskardo Jenerala, 3

— MOTRIKU —

UTSUNE AU**ORDAINDUA DAGO**Arrain Konserbak nun?
BUSTOK Mutrikun
KONSERBA ONENAK
BUSTO'RENAK**BUSTO S.A.**

LANDOLAK: MOTRIKU, ITZIAR, ESTEPONA ETA ALGECIRAS

Urrutizkiñak: 601440-41-42
— MOTRIKU —**Jesus Orbegozo Elortegui**ONDARTZA INGURUAN «BURUMENDI» AUZO BERRIA EGITEN ARI DA
ARKITEKTOAK: NIKOLAS MADARIAGA ETA LANDER GALLASTEGUI

— MOTRIKU —

JOSE M.^A RUIZ AZKUEETXEGILLEA
SAN NIKOLAS IBILBIDEAN, OGEITALAU ETXE BIZITZA BERRIAK EGITEN ARI DA
MOTRIKUN PARAJE ONENEAN ETA EGUZKITSUENEANUrrutizkiñak: 60 13 84 eta 60 13 66
— MOTRIKU —

MOTRIKU TXAPELDUN

Irakurleak badaki, aspaldidanik, era askotako txapelak gertatu izan direla. Erriak, txikia izanik badu bere nortasun berezia, bere garra eta indarra. Bai futbol lanetan, bai pelotan, bai kultura mailan, bai jaialdi antolaketan, guregun ez genduke Goizeko Izarra elkartearen izena aipatu gabe utzi nai, eta baita soka-tiran ere. Motriku iñork pentsatzen ez zuen aintzako trebetasun, egokitasun eta indarra erakutsi du, soka-tiran. Dakigunez, gazte talde, batek, euskiroletan zaildu gabeko taldeak, zimelak, artean plaza gizonak izatera iristen ez direnak, dantza zeregintan geiago pentsatzen dutenak, zer egingo dute bada? Auxe da askok pentsatzen genuena. Baiñan besterik gertatu da. Kalbariartako festetan onen berri ematearren, Etxerre baserrira jo dugu Jose Antonio Arrizabalagak lagunduko digulakoan.

—Danera jo eta, bederatzigera soka-tiran gabiltzanak. Zortzi tira egiten dutenak eta ni botillero naitzen. Badira beste suplente, ezinbestean jokatzen dutenak. Elkartasunari eskerrak, barrio maillan alkartu eta gero lortu genuen Markinako txapelketa.

—Zeintzuk izan zintaten, Jose Antonio, bertan parte artu zendutenak?

—Mutrikuarrek ezagutzen gaituzte. Auxek dituzu: Sebastian Ituarte, Rufino Ituarte, Jose Maria Egaña, Juan Mari Egaña, Jose Maria Astigarraga, Pedro Alkorta, Jose Alkorta, Jesus Txurruka eta ni botillero bezala.

—Zuen ogipidea?

—Geienak baserritarrak gera. Gure artekoak bi botillero eta gaitzakoak nekazariak, baserritarrak gaitzue.

—Garai ontan lanik asko egoten da baserrian. Entrenatzeari noiz ekiten diozue?

—Egunez ez degu astirik, eta illunabarrean, gaueko bederatzitertan ematen diogu hasiera. Gero tira eta tira gogor, aspertu arte.

Eatez ere tiraka zailtzen gera. Gaitzontzean, jinasia eta abar egingo bagenu, pisua galduko genduke.

—Indarrak gorputzeko karga edo pisua ere eskatzen omen du. Karga haundiko mutillak al zerate?

—Batenez beste, laraogaitamar bakoitzak.

—Adinari edo edadeari begira?

—Danetarikorik badela esan behar dugu, baiñan gazteak gera oso. Ogeitabi urte inguru gutxi gorabehera.

Gogoa bear da, egia esan, egun guztian lan neketsutan jardun ondoren, soka artu eta Saturrarren Seminario inguruan entrenatzeari ekiteko. Gazteriak dantza eta solasa maite du, baiñan zerbait lortu eta eskura nai denean, badaki sakrifikatzen ere. Erakusbide ederrik eskeini digute Mutrikuko gazteek.

—Markiñan, Ekainaren 6an, Espainiko txapelketa irabazi zenuen, eta jokatu aurretik jendeak ez zukean zuen alde txakur txiki bat emango...

—Bederatzi kuadrilla giñan danera, batzuk ots aundiko jende indartsuz jositako kuadrillak. Baiñan joko joko da, eta guk irabazi egin genuen...

—Behar den aintz aipamenik ez duzue jaso, noski...

—Guk ez degu aipamen eta izenagatik jokatzen, gu geure lana egitera goaz. Baiñan ondorenean periodikuek, berdintsu irratian ere, ez dute gure lana aintzakotzat artu. Gure ordez, beste kuadrillaren batek irabazi izan balu...

Jose Antoniok, gai ontan zer esanik baduela dirudi, baiñan isiltzen zaigu. Ez du zalapartarik, iskanbilarik maite, barrio maillan elkartasunari lortutakoa, erri maillan ere denok elkaturik jarraitzea desio du.

Jose Antoniok, gai ontan zer esanik baduela dirudi, baiñan isiltzen zaigu. Ez du zalaparta eta iskanbilla maite. Barrio maillan gazteak elkartzu lortu dute leen saria. Jendea zatitu eta sakanatuz gureak egin duela aitortzen dit.

—Zeintzuk dira, aurrerantzerako zuen asmoak?

—Irailaren bederatzigera Sestaon egingo dugu gure saioa, eta amarran Gasteizen, Bitorian. Ingeles oi talde dira bertara etortzekoak, eta entzun dugunez lanik asko emango digute.

—Zeruko Argia zabaltzerako, irakurleak jokaldi onen berri jakingo du. Nere aldetik garaipena, irabaztea opa dizuet. Baiñan gero Ingiaterrara joatekoak ote zeraten ere entzun dut...

—Gai ontan ez degu erabakirik artu. Orrelako ibilaldiak gastuak daduzka berekin, eta oraindiano ez dugu laguntza geiegirik izan. Udalezteak eta Bilbaoko Corte Inglés etxeak zerbait lagundu izan badigute ere...

—Beraz?

—Oraingoz entrenatzen gogoz ari gera. Sestaon eta Gasteizen jokatu ondoren ikusiko dugu. Ingiaterratik deadarka ari zaizkigu, baiña diru arazoa, bertatik sortzen diran gastuak goruntz joko dute.

—Azkenik, Jose Antonio, eta botillero zaitugunez, soka-tiran erabiltzen duzun teknikaz, nola jokatzen duzun esango al diguzu? Arrizabalaren erantzunak biziak dira, batbatean emanak, iztuna eta atsegina dugu elkarriketarako. Baiñan era berean erantzuten dakiena, neurritz itzegiten dakiena. Horregatik, farre-murriz bat egin ondoren, auxe erantzun digu:

—Teknika, teknika... Gurea auxe da: gogor entrenatu eta zintzo ibilli. Sarritan, goi maillako txapelak, entrenatzeari uzten badiote, zintzotasunari eusten ez badiote, bereala lur jotzen dute.

Besterik ere izango dela pentsatzen dugu, baiñan ez da gutxi. Entrenatu entrenatzen dira eta laguntzarik eskuratzen badute luzarorako soka-tiran goi maillako taldea izango du Motrikuk. Gure aldetik, zorian beroak ematen dizkiegu eta gailurrati utsiko dioten itxaropenik ez dugu gaitzen.

Andoni Ugarte



Mutrikuko Ikastola

Mutrikun Kristo Kalbariokoaren jaiak diralarik, leenbizi, adiskide, lagun, erritar eta auzo-errietatik onuntza urbiltzeko asmoz diren guzietan, jaialdirik zoriontsuenak igaro ditazela opa dizkiet. AGUR JAUNAK, JAUNAK AGUR, AGUR TA ERDI.

Agur onen bitartez, ain garrantziko den ikastolari buruz zerbait berri ematea bear-bearezko dela esango nuke.

Pozgarri da benetan gure erriko ikastolak artzen ari den indarra. Larrogei ta bost umetxo inguru biltzen dira eguneroko ikastaroetara, eta urtearen bukaera baiñan leen beste ume mordoak geiago barruratzeko asmoz arkitzen dira. Egokitasun eta berritasun bidez antolatua dugu ikastola au, iru urtetik sei bitartekoentzat, iru maillatan banaturik.

Leenbiziko ikasketak, abesti, otoi, marrazki, jolas eta elkar-izketaren bidez izaten dira. Gerotxoago asten dira zerbait idazten, irakurtzen, zenbatzen ta abar. Guzia euskeraz. Garrantzi aundikoa da umetxoak euskalgiran eta sendi giroan ezitzea. Ez da aski umetxoak ikastolara biatzea, ez; gurasoek ere beren aldetik badute umeekiko bete bear zorrotzik. Berak aalegindu bear dute umetxoak ikastolako giro berbera etxean erabiltzen. Etxea baita leenbiziko ikastola, etxea leenengo otoi-leku, eta gurasoak umetxoaren irakasle, umetxoaren arduradun eta jabe.

Andereño aldetik, ondo eta zuzen gerturik azaltzen zaigu. Iru andereño jator burutsu ta erakuspideari buruz, tajuz apaingurik daudenak.

Ala ere, ikastolak badu bere laztasun, neke ta eragozpenik.

Diru aldetik, zer esanik ez, buruauste eta erabili bear aundiak. Baiña orra or guzien osakai GOIZEKO IZARRA ELKARTEA. Beti prest, neke eta erabili bear aundienari aurpegi emateko. Beti gertu jai-aldirik bikainenak eratzeko: dantzari, antzerki, abes-talde, margolari-sariketa ta abr... Laguntza oiei esker, ikastola indartsu eta sendo aurrera dioja.

Baiña ez da naikoa guzia GOIZEKO IZARRA ELKARTEAREN bizkar uztea, guraso eta erri osoaren barren-kontzientzi bear du oiñari, bear diren erarxtasun eta laguntzak lortuko badira. Nire ustez, erriko umetxoan alde aintzeste lan aurrera daraman Elkarte batek, erri aldetik laguntza ugariago bear luke, gure erriko umetxoak kristau zintzo eta benetako euskaldun giro on batean azi eta ezi ditezten.

ZIRIAKO



TALLERES

AZPILLAGA

Itxas ontzien, era guztietako konponketak

Purto

Urrutizkiña: 60 13 80

— MOTRIKU - ONDARRU —

Bar LORETXU

Kirol guztietako berriak
Askar jakin nai badituzu
Bide erreza daukazu
Etxe ontara etorri bear dezu

Urrutizkiña: 60 13 97

— MOTRIKU —

Jose Osinalde

ARATEGI ETA TXERRIKIAK

Koronel Rubio

Urrutizkiña: 60 13 13

— MOTRIKU —

Yurrita e Hijos s.r.c.

Arrain Konserbak-Antxoataunak, eta abar

LANDOLAK: MOTRIKUN-MENDARON-LEKEITION

URRUTIZKIÑA: 60 13 35

Pablo Aranzadi

LINTERNERI LANTEGIA - BEROKIN ETA BAIÑU LANAK

— MOTRIKU —

LEZO

GARMENDIA JAKI DENDA

BARAZKI ETA EDARI MOTA
GUZIETAKOAK

San Juan bide, 2
— LEZO —

Julian Iturain

OINETAKOAK; SALKETAK ETA
KONPONKETAK ZUBITXO
KALEA

— LEZO —

AUTOSERVICIO

Jauregui - Alde

SAN JUAN KALEA

Urrutizkiña: 35 53 60
— LEZO —

UGALDE

ARDO DENDA
ASKOKA ETA GUTXIKA

Nagusia, 13
Urrutizkiña: 35 52 66
— LEZO —

LARREA ANIAK

LINTERNERIA

Pinturak, kolak; garbigelak, tube-
riak, Kaineriak, Plomoak, soldake-
tak, zinkak. Era askotako kalenta-
doreak eta beren ezarketak.

Kale Nagusia, 30
Urrutizkiña: 35 46 63
— LEZO —

KOLDOBIKA LOPETEGI

HARAGITEGI ETA TXERRIKITEGIA

Urrutizkiña: 35 48 64
— LEZO —

BAR

AIZPEA

KAFE, PATARRA ETA ARDO
ONAK

Bazkariak eta apartiak
Gurutz Donearen enparantza...
— LEZO —

Frantzisko Espina

ETXE TRESNA; ELETRIKOAK
ERA GUZIETAKO FRIGORIFIKO; KALENTADORE
TELEBISTA IRRATI ETA ABAR
ARGI EZARKETAK ETA KONPONKETAK
San Juan bide kalea, 25 Urrutizkiña: 35 68 37
— LEZO —

Garmendia Arozteguia

ERA GUZIETAKO LANTEGIAK
ETXE ETA DENDA KONPONKETAK; FORMIKAZKO LANAK
San Juan kalea, 6 Urrutizkiña: 35 48 57
— LEZO —

Litografia DANONA S.C.I.

SALEROSKETA ETA PUBLIZIDADE INPRIMA LANAK
Gaintxurizketa-ko bide-zabalean, z/g. Urrutizkiña: 35 54 40
— LEZO —

RAFAEL LEKUONA

MEKANIKA AROSTEGIA


Tropikoetako egurretan eta
«Parket» solairuetan berezitasuna

Kale Nagusia, 34
Urrutizkiña: 35 56 84
— LEZO —

Beristain Anaiak

OGI-OLA ETA JAKI DENDA

Zubitxo, 1
Urrutizkiña: 35 51 53
— LEZO —



Banco de San Sebastian

BESTE SUKURSALAK:

Alegria de Oria, Ataun, Azcoitia, Azpeitia, Beasain, Cestona, Eibar, Urb. Dos de Mayo, El-
goibar, Escoriaza, Fuenterrabia, Guetaria, Irun, Lasarte, Lezo, Mondragon, Oñate, Orio, Ormaiz-
tegui, Pasajes, Renteria, Segura, Tolosa, Vergara, Villafranca de Oria, Zarauz, Zumarraga, Zumaya.
Urrutizkiña: 35 62 01


ASERRADEROS de LEZO, S. A.

Lantegia eta almagrenak Lezo'ko itsasbaterrean (Pasaia'ko portua) Hemengo
eta atzerriko egurrak. Tropikoetakoetan berezitasuna. Ohol kontrapeatuak.
Tablex, saide, tarimak eta moldurak.

ALMAZENAK

LEZO'n: Nagusia, 31. Urrutizkiñak: 355000 eta 356944.
DONOSTIA'n: Easo enparantza, 3. Urrutizkiña: 410536.
APARTADO 518. San Sebastián.

LOGROÑO'n: Avda. Bailén, 54. Urrutizkiña: 213499
Telegramas ALESA
TELEX 36228. ALESA E



SALVA elektriko sutegiak

Industri gaietarako Elektriko Zaildura (resistencias)

Landola eta lantegiak: Bide zabal Nagusian-477 km.

— GAINTXURIZKETA - ERRENDERI —

Urrutizkiña: 35 47 46 (iru ari)

Karteentzako zuzenbidea:

Usandizaga, 18

Urrutizkiña: 42 99 33

Esteban Orbegozo, S. A.

Laminazioak - Hojalata Electrolitikoa

Urrutizkiña: 35 54 47

LEZO

Fernando Intxarraundieta Aizpuruak

HARATEGI ETA TXERRITEGIA

Urrutizkiña: 35 68 57

Banco Hispano Americano'rekin elkartua.
Etxenagusia, Donostia'ko avda. España, 15, 17 eta 19'tan.

DONOSTIAKO SUKURSALAK:

Amaran: Avda. Sancho el Sabio, 31 eta 33.
Antiguon: Matia, 58.
Azkuenen: Azkuene, 3.
Egian: Egia, 3.
Grosen: Primo de Rivera, 19.
Anoeta: Isabel II, 15.

GURE KALETATIK

LEZO

Abuztupko arratsalde sargori bat zen eta ohi bezala larunbat arratsaldetan lantegian jai eman ziotenez gero, «Sorotxo»tik barrena Jaizkibelera igo eta «Zumillondo»tik itsasertzera, ur garbieten igeri egitea erabaki zuen Lezoko mutil batek. Bidezidorrak otez joserik zeuden eta maiz makurtu behar izan zuen; halaz ere, kontent zen, gehiago urtuko bait ziztaizkion gerriko mitxelinak; izan ere, bulego alu hartan eguneroko hamar ordu egin-ta gero ez zuen astirik izaten depor-terik egiteko. Leher egirik ailegatu zen lehenengo dorre-atzera, «Londres»ko parera, eta eskerrak handik aurrera malda behera hasten dela. Zoriontsuago zen mendian iparraldean, ez zen soinurik entzuten, ez kerik arnasa hartzean dastatzen. Akaso romantikoezia, baina arrazoi zuenik ezin uka. Han, joan zen maldan behera, korri eta salto, eta agudo uretzan zegoen; aspaldiko aldiz biluzik egin zuen igeri, lasai arraio; behatzenak azala zimurtu arte uretan izan zen eta eguzkitan lehortu zenean, jantzi eta maldan gora abiatu; hauspoa hesutu zitzaion, baina aurrera jo zuen.

Adierazi bezala, bero gehiegi zen eta inon baino gehiago aldapan gora; malda erdian zela haizea eta itsasoa harrotu ziren eta handik berehala enbatak eta trumoiak jo zuten, sekulako euri zaparrada hasi eta horra gure gaztea inolako atzerik gabe euritan blai. Hura atarmentua! Lehen malda poliki igozen lehertua eta orain korrika egin behar.

Inkisizioak gehiegi ugal-erazi ez bazituen ere, badugu egun sorginik eta inor gure mendian beharrean bada, harri agertzen zaio laguntza eokaintzen. Mutila beharren ikusi zuen «Lirain» sorginak eta haren-ganatu zen. Nor zen eta zer gertatu zitzaion adierazi zion gazteak eta «lizenziatura» lortu berria izan bide zuen sorginak, hogeit urtetakoa edo itxuraz, Lezoraino ekarriko zuela agindu zion, herria erakutsiko baldin bazion.

Esan beharrik ez mutilak «Lirain»-ek proposatari baietz esan zionik. Eskoba gainean hartu zuen mutila eta han joan ziren aidean Triku Harritik barrena:

—Eskerrak herenegen parabisas ipini niola, bestela hezurretaraino bustirik geundeko.

—Faborez, hor gure baratzan aparkatuko al duzu? Inporta ez baizaizu, erakusketa baino lehen etxe-ko itaitzurak (itotiak) nola dauden begiratu nahi nuke.

—Zer arraio da hori? Etxe bat? la jo nuen.

—Bai; «Intxaurra» du izena. Etxe hau eta Goiko Eliza kolkak eta gainontzeko etxeak txitoak direla ematen du hemen goitik. Gure baratzan ere egiten hastekoak ziren, baina ez al dute horrelakorik egin-

—Arrazoi duzu, eta hori hau Kale Nagusia dela, edo harategi batean biltzeko erabiltzen duten paperean bezala esateko «Nagusi-Kalea». Azken izen hau benetakoa izanez gero, seguru ez zela zulorik baina bai farolik.

—Eta horko kupel horiek zer egiten dute kale erdian; ez al ditu inork lapurtuko?

—Bai zera; lezoarrok trapujale omen gera, baina lapurrak...

—Barka, barka.

—Atzeko etxe hortan jaiotzen ziren Elias Salaberria; bere anai eta familia hor bizi dira. Hor beheko apuntalutako etxe horri «Kuartera» deritza, soldadurik bizi izan zelako edo ez dakit.

—Adizu, eta zertarako dituzue iturri hauk kalean?

—Beste bi ere baditugu; bata lehorra baina bestea ez. Zera gertatzen da, alegia, kotxeak kale erdian garbitzen dituzte, ehietako iturrietatik mangerak ipini eta atarira ateratzen dituztela, baina orduan etxebizitzetara ez da urik ailegatzen eta kale-iturri hauetakora etorri behar ur bila.

Hau da Herriko Plaza (Plaza del Santo Cristo); hor eskubiko kaeak ere santu izena du «San Juan Kalea» edo berrira jarri dituzten letreroetan bezala «Calle de San Juan/Donibane Kalea». Ikusten duzun bezala, kontuz orkatilla, plaza Erdi Haroan bezala, harriz egina dago Indianoenerako aurrekaldean. Hori Herriko Etxea da.

—Zer moduz portatzen da?

—Bueno; kalean itxura gatik juzga dezakezu; azken urte hontan Elkar- te bakoitzari 5.000 pezetako suben-zioa eman dio (Allerru, Asociación

de Padres de Familia eta Ikastolarari) eta ustez beste urtetan bezaa 250 pezetako Parrokiako Koruari.

—250 pezetako?

—Bai, bai; ongi aditu duzu, eta hori sekulako superabit izaten omen duela; antiklerikalak izango dira segur aski. Sekretaria euskaraz ikasten hasia dela ere esan da, baina ez dakit egia den. Liburutegia ere jartzekotan ziren baina oraindik be- deren ez da ireki.

—Eta korreo banaketan eta nola zaudete?

—Oso gaizki; Errenteriatik bantzen dute eta oso atzeratuta aile- gatzen da, batez ere Z. Argia, erre- bistak, liburukoak, e.b. direnean. Te- lefono kabinarik ez dugu oraindik.

Zorionez midiku-konsulta lekuz al- datu dute; duela gutxi arte modu txar- rean zai egoteko leku txar- rago bat zen, batez ere gaixo diren- tzat. Oraingoa hobea dela entzun dut; ez da gaitz.

—Eta beheko kale hori?

—Zubitxo Kalea deritza; kale hon- tan, «Txerrimuñone»an zegoen herri- hontako azkeneko sagardotegia eta inoiz Etxe-Berriak izeneko hauzora, baserrietara edo egin dituzten fa- brika berrietara joan nahi izanez gero hortik joan behar duzu, baina hobe duzu erratzaren gainean oinez baino, zuloa besterik ez den kamio hortatik.

Hori, Ajuntamentu atzean, Goiko Plaza (Plaza de Juan XXIII/Juan XXIII-en enparantza), eta bertan frontoia, balonmanoko kanpoa, hau- rren jolaserako tresnak, aparka- mentua, e.b.

—Eta zertarako dituzue bi eliza?

—Ez dakit. Goikoan bataioak eta intiarroak egiten omen dira; gain- ontzeko elizkizunak Behekoan egi- ten dira. Gure zaharrek bi elizen ordez hobe lukete, bai, bat baka- rra, eta teatroa edo besterik egin- go balute, baina?

—Joaten al da jenderik elizara?

—Ez lehen bezala, baina bai. Gazte gutxiegi noski.

—Gazteriak nola jokatzen du?

—Ez da oso indartsua Lezon; az- ken urte hauetan inoiz baino kez- katiago dago; lanerako gogoia ikus- ten zaio, baina gauzak sakonetik hartzen ez dut uste oraindik ikasi- dugunik eta behin baino gehiagot- an poto egin dugu, «apostolatu- koekin» batez ere. Hamaika aldiz ugariagoak dira euskaraz uzten du- tenak ikasten ari direnak baino; ikastolako bazkide zerrendan oso- gazte gutxi dago, eta hori nahi- hainako kuotak onartzen direla. Ge- hienok Errenteriatara eta Donostiara jotzen dugu libertitzera, hemen ta- bernatik tabernara ibili besterik ez- dugulako.

—Ikastola aipatu duzu. Ez da oraintxe patxadan egongo.

—Ez horratik. Lege Berriaren arauak betetzeak zenbait ondorio ekarriko dizkie: San Juango Lizeoa, hemengo euskal-parbulario berria (euskal-diot, erdalak nun-nahi eta nahi bezala irekitzen dituztelako) eta beste mila gauza.

—Inmigrazio handia jasan al du- zue?

—Ez Errenteria eta industria-herriak bezalakoa, baina bai aski. Ge- hiena pioitzan ari dena. Normal den bezala, asko beheratu da euskara- ren porzentajea. Gure herria eus- karatzen nahiko lan ba dugu.

—Euskal irakurlegoa?

—Urria da. Alfabetatze kanpain- rik ez da oraindik egin eta behar- retan gera; aldizkariak hala hala saltzen dira, baina berri-emalerik bagendu, gehiago irakurriko litzake; norbait animatuko balitz.

—Oso interesantea da, baina las- ter akelarrea dugu eta alde egin... aju! aju! beharko.

—Aju! aju!; kirats alu hau. Ahaz- tu itzaldan; datorren hilean ditugu festak, Santakrutzak, eta etorri- nahi baduzu badakizu non bizi geran. Bazkaltzera eta dantzara gonbida- tzen zaituzte.

—Bueno. Etorriko naiz eta orduan beste xehetasun gehiago adieraziko dizkidazu, gainera orduko nere ahizpekin gauzak nola konpondu pentsatuko dut.

—Bale. Ez erratza ahaztu. Musu bat. Muu! Agur.

—Agur.



B i g i z o n o s p e t s u

Ene adixkide ezaguna etorri zait etxera. Nitaz galdegan duen une berean, igarri diot gutxi gorabehera, ze asmotan zan. Ain zuzen ez nen- goan oker, erriko jaiak bereala dirala eta Zeruko-Argia asterokorako lanik egingo ote nuan edo galdetu zidan.

Nere erantzuna, zerraldo eta bat batean, ezetz esango nion gustora. Leen ere, aitortu izan ditut nere arrazoiak, adieraziaz ez natorrela bat asteroko onen jokabideaz, beraz ez naiz emen berriro asiko betiko to- kata jotzen; bakoitzak bere arrazoiak ditu eta kito.

Gaur beraz emen, batez ere, ene ezagun oni diodan begirunegaitik idatzen dut, bere neurrian, euskal zaletasuna barrutik sentitzen duelako. Dana dala, zer gai osatu bear ote dut nere lantxo onetan? Badira noski gertakizun asko gure errian bear bezela aztertu ditezkeenak. Fa- brika berriak, ai berria, ostatu berriak, gazteri berria (berria?), keats eta zikinkeriak, garbitasun eskaxa, ikastola eta elkar-teen gorabeherak, eriotzak, Udaletxeko kuxan ondo gordeta dauden milioiak...

Orri askotako liburu aundi bat osa ditekete, izan ere, Lezoko albisteek. Bat batean gogoratu zait, labur xamar adieraziko dudana gaia.

Denbora gutxi barru, erriko bi gizon ospetsuren berri pozgarriak jakin ditut. Pozgarria izango da noski, bi gizon auek, atzerrian bi sari garrantzidunen jabe egin direla aitortzea. Bat txistulari bezela, bestea abesti asmatzaile bezela.

Gure eguneroko gorabeherak, denbora geiago ematen ez digulako edo alferkeriaz jota gaudelako, ez diogu egin egia esateko, jaramon aundirik gizon ospetsu auen gertakizunari.

Au ez da noski nere errian leenengo aldiz gertatzen dana, aurretik ere joan dira beste gizon ospetsu batzuk, isiltasun aundian. Izan ere atzerriko zenbait gizonen goratzea badirudi atsegiñago zaigula etxe-koak baiño.

Garaia da noski, gure lurtean sortzen diran jakintsuek, erriaren be- girune geiago izatea. Berak bere almenak azalduaz, gure erria goratu dute ludi zabalean barrena. Polentzi Guezala eta Tomas Garbizuk me- rezitu dutela uste det erriaren erantzun sakon bat. Edo atzerrian bi gizon auek, goralduak diren bitartean, gure errian, isiltasun lotsagarri ba- tean gelditu bear ote dute?

Lezoko agintari, elkarte, zaar eta gazteok guk daukagu itza. Danon artean ez ote degu egingo, geiago ezin bada, egun batean beinpin, omenaldi jotzer bat bi gizon ospetsuoi. Bi oiek erriaren nortasuna za- baldu dute.

Erriak...

AGUR'KO erramun

KONTAMINAZIOA

Leengo mendean hasi eta gaur-ko egunetarikoa segitu dio munduak industrializatzeari. Euskal Herrian, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan agertzen da fenomeno hau. Azken urtetan dira azaltzen industria- ztearen ondorioak, hots kontamina- zioaren kalteak.

Kontaminazioa dela ta, duela hi- labete batzuk bildu zen Estokolmon munduko zenbait politikoa; nahiz so- luziorik bilatu ez, gauzak agerian gelditu ziren.

Orain berriro jakin dugu, Bida- soa hibaian zikin-zakarrak bota di- tutzela, hau dela eta arrain gehie- nak hil baitira. Hain zuzen abuztu- aren erdi aldera gertatu da. Bida- soa gainera Gipuzkoan den hibaie- tan garbienetakoa dugu. Besteak, Ojartzun, Uruma, Oriá, Urola... Xa- bier Letek dio:

Uruma	Urola	Oria	ez bai da dotorea zuen kolorea	Errekek ibaiek putzuak sua	kea zimaurrea sosa potasa DIRUA
-------	-------	------	--------------------------------	----------------------------	---------------------------------

Har dezagun orain haize-kontami- natzea. Astegun batean Herreratik hasi eta Errenteria ondotoxo pasa arte nabari dugu kearen arrastoa. Bien tartean hiru Pasaia eta Lezo hartzen ditu. Gehien kastigatzen duena nire ustez Lezoko herria, ur- tean egun gehienetan Galizi alde- tik datorren aizeak jotzen digunez.

Badira hiru ke-zulo Lezo bete be-

TREKU

Errasti Anaiak

Neurrizko lanak — Armario enpotratuak — Formikazko sukalde tresnak — Logeletarako erredezak, Egoteko salak, Tapiztegi, krisailuak, Dekorazioko artikuloak. Erakusketa eta lantokia:

Gaintzurizketa'ko bidea, 12 Urrutizkiña: 35 69 67

— LEZO —

Julio Fernandez Egiluz

ARROZTEGIA
MEKANIKA AROZTEGIA

Ikastoletako enparantza, 1 Urrutizkiña: 35 54 75
Etxea: Versailles Txiki

— ERRENDERIA —

GRAFICAS LEZO

Salerosketarako lanak — Propagandako lanak — Nominak
Katalogoak

Kale Nagusia, 36 Urrutizkiña: 35 64 63

— LEZO —

K. Garbizu



**BIZKAIKO BANKA - ETXEARI
ESKA LASAI**


GASOLINA - TXARTELAK

Eska gasolina-txartelak Oiek eskuan badituzu, ez duzu sosik ordaindu beharrik. Bota gasolina eta eman txartel auetakoak gasolintegian. Bizkaiko Banka-etxeak jasoko ditu zuk gasolintegietan utzitako txartelak. Banka-etxeak ezarriko du zure liburuan zure izeneko zorra. Au da gasolina ordaintzeko era berria. Beraz lasai eska dezaiozuke Bizkaiko banka-etxeari.

BANCO DE VIZCAYA

Autorizado por el Banco de España con el n.º 8655

Baserraren alde
EUSKAL ETA ERDAL



**Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián**

Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta aber

Torelavega'ko Perira Joan etorriak

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)
Avda. de Francia, 1
— I R U N —

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

CASA

«Pedro Jugo»

(Jugo-tar Kepan etxea)

Saleroste guztitarikua
Juan Bta. Uriarte, 15 - Urrutizkiña: 76 00 88
Etxe-ordea, Bengoetxe, 31 - Urrutizkiña: 76 03 69
Gaiñeko salerostea, «SANTA CECILIA»
Juan Bta. Uriarte, 32 — Urrutizkiña: 76 05 89

— GALDAKANO —

VALERIANO URRUTIKOETXEA, S. A.

(ERRI-LANAK ETA ETXEGINTZAK)

Zurak-zerratoki. Atx-arrizko arrobiak, ta igeltsuz lendik egiñeko «BELLROCK» alb-ormak.
Beroz naslikezko moltsotuta zoladurak

GALDAKAO

Urrutizkiñak: 76 01 88 - 76 75 43

FAGOR

edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala

Restaurante Andra-Mari

Beren izenako Aberriko Oroi-galluen aldamenian. Ikuspen ikusgarriak bertatik alderdi guztietara.
Mai berezia

Elejalde - Urrut. 760005 - GALDAKAO

JUANTXO - TXIKI, pertsona serioa

—«Aizu, Txiki...». Esan nion leengo egunean, bost urte bete berriak zituan Juantxo-Txikiri.

—«Ni ez naiz txiki. Txikia nere anaia da. Ni aundia naiz». Erantzun zidan.

Benetan txikia da Juantxo eta iñoren aginpean egotea bearrezkoa zaio; baiña bere burua aundi ikusi nai du. Aundi izatea nai.

Ta bidean dijoa.

Jainkoak berberak jarri zuan, sortzetik, bide orretan.

Aundi izateko gogoia, umerik txikienean ere, agertzen da tarteka-tarteka. Aundi izatea, norbere buruaren jabe izatea da, pertsona izatea. Otarako jaio da Juantxo-Txiki.

—oOo—

Bere burua pertsona serioa bezela tratatua izateko naia ere, ortik sortzen zaio umeri bere barnean. Ortik, zenbait eratako protestak ere. Protesta miña eta gogoia amalau urterekin biituko zaio; ta agertu, berriz, txiki txikitandik.

Protesta oien axolarik ez badezu eta kasorik egiten ez badiezu, zuek aldenduko da Juantxo-Txiki eta pozik izan egunen batean arpegia emate ez badizu!

Asiera-asieratik pertsona bezela tratatzen ez badezu zure umetxo, galduko dezue.

—oOo—

Umea argala, ergela eta txikia da. Zure bearrean da.

Baiña ez da zure mirabe; ez da zure menpeko animalitxo bat ere. Badu barruan argitxo eta borondate librea. Adimen-argi ori eta bere borondatearen askatasuna, begien aurrean izan bearke dituzu beti. Geroz da geiago euki ere, Juantxo bere bidean aurrera dijoan bezela.

Ez da betirako robot eta andrako.

Robot izatetik, pertsona izatera aldatu bearke du, zuk lagunduta.

Geroz eta libertate aundiagoan azita.

Berak bere buruari nola agindu, erakutsita.

Ori izango da umea ondo azitzea.

Ez beti zure menpean eukitzea.

Indarrez.

Indarra da gurasoentzat biderik xamurrena eta errezena; txarrena ere bai.

Beste bide ori da zaillena eta gaiztoena gurasoentzat; baiña umea aziko badute, orixe biderik onena.

—oOo—

Gaurko umea, biako gizona.

Gizon bezela tratatu zazu gaurko ume ori.

Bestela errudun ikusten zaitut askotan, eta Juantxo gizon egingo danean, zure erruak gogoan izango ditu oraindik. Ez umeri egindako erruak balira bezela, gizonari egindakoak bai.

Umeri eginzenion okerra atzo, baiña Juantxo gizonak berari, gaurko gizonari, eginda bezela gogoratuko ditu.

Orra korapillo gaitza.

Prolema letza.

Juantxo-Txiki ez da gizon; alaz ere, gizon bezela trata zazu.

ANES LAZKAUko



GALDAKANO

ATSEKABEAK ETA ATSEGIÑAK

Joan zan asteen, espetxean egonaldi latza eginda, nere lagunik kuttunenetako bat etorri zitzaidan. Bai besarkada luze eta goxoa gurea! Ango ta emengo gora-beerak aztertu ondoren. Zeruko Argia ikusi zuen maai gainean. Ta... galdera auxe egin zidan: oraindik irauten aal diten leengo afizio kokorrek? Esan bazidan esan zidan. A zer nolako erretolika gurea. Gogoan aal dauzken leengo S. Joseren atsekabe-atsegiñak? Uraxe ber-bera gertatzen zaidan neri.

Zeruko Argia noiz etorriko irrikatzen egoten naun. Begiak luxeluxe eginda karteroarenzai. Benetan poztan naun eskuetan dedanean. Irakurtzen asten naizenean berriz ozpinduta gelditu. Aspalditxo onetan euskal idazleak elkarri mokoka zebiltzak. Zerbait esateko gogoia zeukanat eta esan egin bear dinat. Bazekinat ito ta jango nautela, baina nerea ere entzun dezatela.

Zeruko Argian idazten dezuten

guztiak euskaltzale pururkatuak zerate. Irakurtzen degunok ere begiko degu gure izkuntza. Irakurleen artean era askotakoak arkitzen gera:

1.º Ume-ume giñala etxean guraso, senide eta lagun artean ikasi genduen euskera dakigunak. Gure errietan, ni ibilli naizen errietan beñepein, banaka batzuk bakarrik izango dira gramatika artuta egokiago itz egitearren ikasten jardun diranak.

2.º Gramatikaz ondo leziatuta-koak. Nere iritiz talde au txikiagoa da. Idazten langille amorratuak dira. Irakurtzen zer esanik ez.

3.º Poliki-poliki ikasten ari diranak.

Orain galdera au: Gaur-gaurkoz nork irakurtzen degu Zeruko Argia? Leenengo saillekoak? bigarrenengoak? irugarrenengoak Nor dira geienak?

Nai badezute beste onoko galdera au: Nork artzen dute Zeruko Argia? Zergatik ez egin azterketa

bat? Au egiteak argi asko emango luke. Zail-zailla ez da. Ez daukazute bakoitzari papertxo bana bialtzen ibilli bearrik. Naikoa litzake egun batez izparringian bertan onoko galdera auk egitea:

a) Zer iruditzen zaizu gaurko Zeruko Argian dabillen ez bai au?

b) Ze eratako euskera nai dezue zure izparringian? Ume-umetandik ikasi genduen? ala gramatikaz ondo ornitutako ori?


Paper punta ori bete ta arpedun bakoitzak bial dezala bear dan tokira.

Arpedunok ere geure eskubide- txoak izango ditugu, noski. Aste- rokoa ordaindu egiten degu. Ez zai- gu etortzen musu-truke.

Gaur, askotan esaten da, beste- ren iritziak entzun egin bear dira- la. Irakurleen ere entzutea ongi etorriko litzake.

Zerbait on egin dezagun. Ez gai- tezen ibilli beti alkarri mokoka.

ITZIAR



Galdakao'ko Enperantza...

BATIKANO II'en BATZAR NAGUSIA ETA HERRI BAKOITZAREN KULTURA

Iñoiz baino gehiago nabarmendu da aspaldi hontan European eta mundu osoan, gizakiari, nortasun- ez jantzita dagoen ezker, zor zaion itzala eta begirunea. Nunahi eta iñoiz baino sendoago, sortu zai- gu gaur gizonoi, nor bera eta dana dan bezelakoa izateko gogoia. Hor- tan ez du gaur iñork amor eman nahi.

Bainan gizadi bakoitzak eta la- gunak bakarrik ez; familieak eta lagunarteak eta herriek, nahiz haundiek nahiz txikiak, beren bai- tan sumatu dute oraindik-orain, nor bera eta dan bezelakoxea izateko eta agertzeko gogoia bizia. Hoiek denak ohartu berriak dira, badiutzela sendi bezela, lagunarte bezela, herri bezela, beren eskubi- deak.

Ez ahaztu ordea: eskubideak Jainkoak gizonari hontarako ema- nak dirala: gizon den ezker eta gizon denez, aginduak betetzeko.

Zer agindu dira hoiek?

Zer agintzen dio Jainkoak gizo- nari?

“IZAN HADI GIZON”

Baina gizon izate horrek bereiz- tasunak baditu. Gizonak gizon izate- do halako gizon izan behar du: teko, nahi eta nahi ez honelako Beltza nahiz euskalduna.

Gizon hutsa ez da iñon bizi.

Eta honelako edo halakotasun bereizi hori zerk ematen dio? Edo nork ematen dio? Gurasoak Baina gurasoak guraso, giza bakoitzak bere jatorrizko herria du, eta herri horren bitartez ematen dizkio Jain- koak gauza asko: Kultura, bizi- giroa eta abar.

Zer da ordea kultura? Hona he- men hari-muturrari nola heldu diogun.

“Gizona kulturaren bidez iristen da benetako giza-maila osora; kul- turaren bidez, alegia: Gizonari bere derizkion ongiak eta balioak lan- duaz.

Gizonaren bizi-za gora-behera, izatea eta kultura beti alkarri lo- tuta daude, hortaz.

“Kultura” hitzak hau dana adie- razten du:

1. Arimako eta gorputzeko gai-

tasun guztiak lantzeko eta leuntze- ko gizonak erabiltzen dituen bide eta moldeak.

2. Ikasiaz eta lan eginaz, izadia eta lurra menderatzeko erabiltzen dituenak.

3. Ohiturak eta erakundeak ho- betuz, gizarteko bizi-za —nahiz fa- milikoa nahiz herri lagunartekoa— gozatzeko hartzen dituen lanak; as- koren onerako, hobeto esan, gizadi osoaren onerako izan dedin, urteak zehar ikasi eta ikusi dituen gau- zak ondorengoei uzteko, adierazteko eta gordetzeko egiten dituen aha- leginak.

Kulturak beraz, eginkizun bikai- na du: Gizona gizondu, eta ho- rretarako behar diran bide eta mol- de guztien jabe da. Horixe da egin beharrik garratzitsuenak.

Baiña hauze galdakoz: bai al du Galdakanoko gizakiak gizon izateko aukera egokirik? Bai al du euskal kulturaren hazia eta heziketa izateko biderik? Alderdi au zaitu eta landu beharrean gertatzen gera galdakanorrok. Ez gaiten lo egon.

URKIOLA


OLINPIADAK

Munichen dauka munduak begiak abuztuaren 26tik irailaren 10 arte. Ehun eta iru naziok, amar milla kirolari eta gehiagok, amets egingo dute urrezko edo zillarrezko edo brontzezko 1109 medaillez. Mailla bakoitzeko eta kirol-mota bakoitzeko irabazleek jasoko dituzte bakoitzari dagokion erakoa. Ogeigarren Olinpiadan gaude. Zazpirehun milloi egon ziran Mexikokoan olinpiadatik zintzilik. Milla milloi egongo direla uste da Munichekoan.

Ogeigarren Olinpiada esan dugu, baiña zaharrak dira Olinpiadak, ogei azkenekoak aipatzen baditugu. Jesukristo jaio baiño 884 urte lehenagotik asten omen dira. Izkutuan gelditzen dira orduko txapeldunen izenak eta kirol-motak. Elide-ko Co-reibos-en Jesukristo baiño 776 urte lehenagotik jokatutakoaren berri zerbait gehixeago dakigu. Sukaldean lan egiten zuen norbaitek irabazi zuen txapela eta ikusgarria izan zen jendeak egin zion abegi ona. Amaika eskerakutsi ederrik asko jaso zuen jendearengandik.

OLINPIA

Baiña Olinpia lurraldea aukeratzeko kirol ekinaldi auetarako lekutzat. Lau urtetatik lau urtetara ospatzen dituzte kirol-jaiak. Olinpia ibarrean, mendiz inguratutako eta aize-babeseko ibarrean bildu behar zuten garai arteko kirolaririk onenak.



Heidi SCHUELLER, olinpiar zina egin duen lehenbiziko emakumeakoa.

Jesukristo baiño 752 urte lehenagotik asi ziren lehenengo aldiz erramu buruntza buru jiran jartzen irabazleari, gaurko medailaren orde. Zeus jaingoaren irudi aurrean bildu behar zuten kirolariak zin egiteko eta oroigarriak eta sariak jasotzeko. Ez dakigu zer kirol-mota jokatzen zituzten. Bat jakituekoa, berrehun metrotako lasterka dugu. Amabosgarrenean bost millakoa ere jokatzen dute. Gerora guduak, zaldi-lasterkak eta beste asko. Teodosio aurrenekoak amaitu ziren Olinpiako jokoak 393 garrenean, 293 aldiz jokatuta ondoren. Gerotik ezin jokatuta ahal izan dira 1896 arte nahiz eta askotan berriro nahi izan.

ATENASEN AURRENEKO OLINPIADA BERRIA

Pierre de Fredi Greziako kondaira eta kulturarekin oso lilluratu zitzaizgun. Batez ere txunditurik utzi

zuten Olinpiako jokoek. Auek berriro arteko onik ez zuen izan nahiz eta politikari askoren gogozkoak ez izan. Parisko Sorbonan biltzen dira 1894 garrenean ogei eskualdetako kirol-ordezkariek. Ez zen lanean aspertu, denak buru-berotzen, berriro Olinpiadak sortu behar zirela denen buruetan sartu arte. Antxe erabaki zen andik bi urtetara Atenasen egitea.

Munduari berri au ematen dio 1896 garrengo Apirillaren 5ean Greziako Jorge erregek: «Atenasen egingo dira Olinpia-joko berriak». Iru eskualdetako kirolariak azalduko dira plazara. Lau kirol-motetara jokatuko dute: guduak, igeritzan, tiroan, tenis, txirrindularitan, ez-pata-jokoan, jinasian, karga-jasotzen eta atletismoan.

James Connolly atera zen irabazle. Olio eta erramu adarrak eman zitzaizkion. Artean ez zen medailarik. Irurogei-ta amar milla bildu ziren joko aiek ikustera. Berrehun eta laorgei-ta zazpi kirolaririk jokatuta zuten.

PARISEN BIGARREN OLINPIADA

Parisen jokatzen da bigarrena 1900 garren urtean. Milla eta irurogei-ta sei kirolari azaldu ziren. Amairu eratako jokoak zeuden aukeran. Ipar-Amerikakoek lanak eman zituzten oraingoan ere lehenengo bezala. Atletismoan esate baterako ogei-ta iru pruebatatik amazapitan aurrea ateratzen dira. Ipar-Amerikako Alvin Kraenzlein atera zen txapeldun lau sarirekin.

SAN LUISEN IRUGARREN OLINPIADA

San Luisen Missouri ibai ondoan jokatuta zen irugarrena 1904 garrengo abuztuaren 12an. Amerika ez egon atzaparretan eta Parisa joan zirenen erdiak ere ez ziren joan. Larehun eta larogei-ta amasei bakarrik azaldu ziren, amaika eskualdetakoak. Amairu motatako jokoak jokatuta zituzten.

Olinpiada baiño Amerikako jokoan agerpen bat gehiago izan zen ura. Etxean geratu ziran sari gehienak.

LONDRESEN LAUGARREN OLINPIADA

Zazpigarren Eduardo erregek eta Alejandra erregeak edertzen zutela asi zen laugarren Olinpiada 1908 garrengo uztailaren 13an.

Bi milla eta berrogei-ta emeretzi kirolari joan ziran Londresari irabazteko asmoz. Ogei-ta bi eskualdek artzen dute parte. Amasei eratako jokoak dituzte aukeran. Ipar-Amerikako Mel Sheppard eta Inglaterrako Taylor atera ziren gailen. Bakoitzak iruna urrezko medaila jaso zituen. Baiña jendea illeak zutik jarri zizkiona Petro Dorando izan zen. Lurrean erori zen akiturik ia iritxi zen garaian. Arrastaka, lau oinen, iritxi zen. Baiña estuasun artan norbaitek zerbait lagundu ziolako saririk gabe gelditu zen.

Ikusgarria izan omen zen jendearen isiltasuna. Urrezko kopa bat eman zion urrengo egunez Alejandra erregeak.

ESTOKOLMON BOSGARREN OLINPIADA

Estokolmon jokatuta ziren bosgarren Olinpia-jokoak 1912 garrengo uztailaren seian. Bosgarren Gustavo erregek egin zuen asierako itzaldia. Bi milla eta bostehun eta berrogei kirolari azaldu ziren ama-lau eratako joko aiek jokatzen.

Ogei-ta zortzi eskualdetako kirolariak ziren.

ANBERESEN ZAZPIGARREN OLINPIADA

1916 garrenean jokatuta behar zen seigarrena Europako gerrateak debekatzen du. Anberesen jokatzen da zazpigarrena 1920 garrenean. Abuztuaren 14ean asten da eta 29an amaitu. Ogei-ta bat kirol-mota dauden jokatzen eta bi milla eta sei-rehun eta sei kirolari oietan neurtezko asmoz. Ogei-ta bederatzitik eskualdetakoak dira. An ziran gure arteko Arrate, Artola, Sesumaga, Pagaza eta Arabolaza.

PARISEN ZORTZIGARREN OLINPIADA

Isil antzean igaro zen Frantziako 1900 garrengo. Sekulako zarata atera zuen, berriz, 1924 garrengoak. Berehaldiko pozez asiera eman zitzaion uztailaren bostean. An zen Errepublikako lehendakaria eta beste errege batzuk ere.

Kirolari guztien artean, nabarmen onena, Paavo Nurmi izan zen. Berrogei-ta lau tokitako iru milla eta larogei-ta bi kirolari ziren guztira.

BERLINEN AMAIKAGARREN OLINPIADA

Ez zen aparteko markarik jarri Amsterdam eta Los Angelesen jokatutako Olinpia jokoetan. Mac Arthur buru zutela, Amerikakoak sartuko baziren, sarrerako atek bota behar izan zituzten Amsterdamen. Los Angelesen, berriz, Japoiok ateraziren nagusi igeritzan.

Bazeukan Hitlerrek munduari bere mutillan trebetasuna erakusteko gogo. Lau milla eta irurogei-ta bederatzitik kirolari joan ziren jokatzen. Berebiziko joka-lekua eratu zuten Olinpia-joko oietarako. Dena jendez gaitzeka zegoen, ehun eta amar millarentzat egin zen leku ura. Marka aundiak jarri ziren. 8,06 metrotako saltoa egitez irabazi zion Jesse Owens Hitlerren begiko zen Long-i.

LONDRESEN AMALAU GARREN OLINPIADA

Aurreko biak ospatu gabe geratu dira. Lau milla eta larehun eta iru-



Mexikoko amerikar txapeldunak

rogei-ta zortzik dute Londresen jokatzen den aurrenekoa. 1956 garrengo Azaroaren 22an asi eta abenduaren 8an bukatu zen. Emeretzi eratako kirolak dira. Iru milla eta bostehun eta ogei-ta emeretzi kirolari daude indarrak neurtzeko gogoz.

MELBOURNEN AMASEIGARREN OLINPIADA

Auxe izango da Australian jokatzen den aurrenekoa. 1956 garrengo Azaroaren 22an asi eta abenduaren 8an bukatu zen. Emeretzi eratako kirolak dira. Iru milla eta bostehun eta ogei-ta emeretzi kirolari daude indarrak neurtzeko gogoz.

Dawwn Frasser-ek uzten du jendea arriturik urte artan. Ez da atzean geldituko Erroman eta Tokion ospatuko diren olinpia-jokoetan ere.

MEXIKON EMERETZIGARREN OLINPIADA

Arrigarri antolatu zuen Mexikoko olinpiada au. Iñork ez zuen uste ortarako gauza izango zenik. Baiña Alemanari ez zaio gaizki etorri ango eraketa ura dena.


Ikusgarri gertatu ziren kirolariek jarritako markak ere. Ogei-ta bederatzitan aurreko markak ausiak

geratu ziran. Zazpi milla kirolari joan ziren guztitara.

MUNICHEN OGEIGARREN OLINPIADA

Jokatzen ari da au idazten ari geran une berean. Nik emen ezin eman berri freskorik. Unero, etengabe jasoko dituzu ango berriak. Jakin eta ikus ditzazula ango markak.

LAPATX



GANGA, ORDIA, HIRNA afrikarrak Munichen. Auteskunderetan irabazle.